



UDAL GOBERNUAREN ERANTZUNA

Gloria Delgado Iglesias arrasatearrak komunikabideei helarazitako eskutitza dela eta, Arrasateko Udal Gobernuak adierazten du:

1) 2010an Udalaitz mendian hildako Joseba Iglesias arrasatear gazte espeleologoaren omenez egindako horma irudia tamalez kendu izana zoritxarreko hutsa izan dela, eta honen ondorioz senide eta lagunei eragindako atsekabea sentitzen dugu.

2) Urtarrilak 2-4 bitartean Uarkape frontoian urtero ehundaka arrasatear neska mutiko batzen dituen Txikilandia Gabonetako Haur Parkearen ospakizunak, garbiketa eta txukuntze lanak eragiten ditu.

Gauzak horrela, garbiketari aritzen diren langilegoaren arteko gaizki-ulertuak, "auzolanean" arrasatear mendizale gaztearen omenez egindako horma irudiaren ezabatzearen arrazoia izan dela.

Hau ikusirik Udal Gobernuak egun horretan bertan, 2016ko Abenduaren 30 an, muralean parte hartu zuten pertsona batzuekin jarri zen harremanetan gertatutakoa esplikatzeko.

3) Arrasateko Udal Gobernuak proposatuko du bere egunean horma irudia egin zutenek Besaide Mendi Elkartearekin elkarlanean, Arrasatear hildako mendigoizale guztien omenez, mural berri bat diseinatu eta margotzea.

Arrasate, 2017ko urtarrilak 3